

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

754

HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2018ko abenduaren 28koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkar-teentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzak emateko dena, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak izan ezik.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikulua xedatzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Horrelako hutsak aurkitu dira ebazpen honetan: Ebazpena, 2018ko abenduaren 28koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkar-teentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzak emateko dena, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak izan ezik. Ebazpena 2019ko otsailaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzan argitaratu zen, 23. zenbakian. Bada, hutsok zuzendu egiten dira jarraian:

Gaztelaniazko bertsioan, 3. artikuluan, honako hau esaten den lekuan:

«Artículo 3.— Ampliar el plazo de justificación al 11 de febrero de 2018, inclusive.»

honako hau esan behar da:

«Artículo 3.— Ampliar el plazo de justificación al 11 de febrero de 2019, inclusive.»